| | |
|---|---|
| **EAJ-PNV UDAL TALDEAREN MOZIOA, MIRANDA DE EBRO ETA LOGROÑO ARTEKO AVE-REN TRAZADURA POSIBLEARI BURUZKOA** | **MOCIÓN DE EAJ-PNV SOBRE SOBRE EL POSIBLE TRAZADO DEL AVE ENTRE MIRANDA DE EBRO Y LOGROÑO** |
| Maider Murillo Treviño jaun / andreak, EAJ-PNVk Lapuebla Labarkako Udalean duen udal taldearen bozeramaile denak, indarrean dagoen erregelamenduaren babesean, honako MOZIO hau aurkezten du, Miranda de Ebro eta Logroño arteko AVE-ren trazadura posibleari buruzkoa. | D Maider Murillo Treviño, portavoz del Grupo Municipal de EAJ-PNV en el ayuntamiento de Lapuebla de Labarca, al amparo del Reglamento vigente, presenta la siguiente MOCIÓN sobre posible trazado del AVE entre Miranda de Ebro y Logroño. |
| **JUSTIFIKAZIOA** | **JUSTIFICACIÓN** |
| Abenduaren 13an Sustapen Ministerioak, bat batean eta inolako jakinarazpen ofizialeik egin gabe, iragarri zuen Miranda de Ebro eta Logroño arteko etorkizuneko AVE-aren lau trazadura posible zituela esku artean.<br><br>Lau alternatiba horietako bik Arabako Errioxako Kuadrilla zeharkatuko lukete. Lapuebla de Labarca, Eltziego, Eskuernaga eta Bastidatik igarota.<br><br>Berehala, Sustapen Ministerioaren proposamenaren kontrako jarrera adierazi zuten, besteak beste, erakundeek, gizarte taldeek, alderdi politikoek, ekoizle eta enpresarien elkarteek.<br><br>Horiek guztiek, Biasteriko alkateak izan ezik, kritikatu eta zalantzan jarri dute Sustapen Ministerioaren iragarpena, formari zein edukiari dagokionez.<br><br>Formari dagokionez, iragarpena hedabideen bidez egin zelako eta, ondorioz, eragindakoei aurretiaz informaziorik eman gabe.<br><br>Edukiari dagokionez, proposamen honek ez du inor asebetetzen eta ingurune | El pasado 13 de diciembre el Ministerio de Fomento anunció, por sorpresa y sin ninguna notificación oficial, que barajaba 4 posibilidades de trazado para el futuro AVE entre Miranda de Ebro y Logroño.<br><br>De las 4 alternativas, 2 cruzarían la Cuadrilla de Rioja Alavesa pasando por los municipios de Lapuebla de Labarca, Elciego, Villabuena y Labastida.<br><br>De inmediato, instituciones, colectivos sociales, partidos políticos, asociaciones de productores, empresarios, etc han manifestado su posición contraria a la propuesta del Ministerio de Fomento.<br><br>Todos, con la excepción del alcalde de Laguardia, han criticado y puesto en cuestión tanto la forma como el fondo del anuncio del Ministerio de Fomento.<br><br>La forma por tratarse de un anuncio a través de los medios de comunicación y, por tanto, sin información previa a las partes afectadas.<br><br>El fondo porque se trata de una propuesta que no satisface a nadie, penaliza el entorno natural y el perjuicio social, |

| | |
|---|---|
| naturala zigortzen du. Gainera, gizarte, ekonomia, kultura eta ingurumen arloetan eragingo lukeen kaltea oso handia izango litzateke. Ondorioz, mahastizaintzako eta ardogintzako sektorea eta eragindako zonaldeak egun ezagutzen ditugun bezala desagertzea ekarriko luke.<br><br>Azkenik, "Kantauri-Mediterraneo" ardatza egiteko, "Euskal Y"-a Nafarroarekin konektatuta egin beharko litzatekeela uste da, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Sustapen Ministerioaren artean landu izan den moduan.<br><br>Horregatik guztiagatik, EAJ-PNVk honako MOZIO hau aurkezten du:<br><br>1.Lapuebla Labarkako Udaleko Udalbatzak, errefusatu egiten du Sustapen Ministerioak Logroño eta Miranda de Ebro arteko tren konexioaren aurreproiektua ezagutzera emateko erabilitako modua, eragindako administrazioei (Udalei, Arabako Errioxako Kuadrillari, Arabako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari) aurretiaz jakinarazi gabe.<br><br>Arabako Errioxako Kuadrillak, Udalek, Eusko Jaurlaritzak, Arabako Errioxako eta Errioxa Garaiko gizarte eta ekonomia arloko elkarteek eta alderdi politikoek bezala, zera adierazten du: errefusatu egiten du Miranda de Ebero-Logroño konexioa egiteko Arabako Errioxan eta Conchas de Haro zonaldean eragina izango duen prestazio handiko trenbide trazaduraren proiektu bat garatzea. | económica, cultural y medioambiental sería tan grande que supondría la desaparición del sector vitivinícola y de las zonas afectadas, tal y como las conocemos.<br><br>Por último, se considera que el eje "Cantábrico - Mediterráneo" debería realizarse conectando la "Y" vasca con Navarra, tal y como se ha trabajado entre el Gobierno Vasco, el Gobierno Navarro y el Ministerio de Fomento.<br><br>Por todo ello, AJ-PNV presenta la siguiente MOCIÓN:<br><br>1. El Pleno del ayuntamiento de Lapuebla de Labarca muestra su rechazo a la forma en la que el Ministerio de Fomento ha dado a conocer el anteproyecto de conexión ferroviaria entre Logroño y Miranda de Ebro, sin comunicarlo previamente a las administraciones afectadas, es decir, Ayuntamientos, Cuadrilla de Rioja Alavesa, Diputación Foral de Araba y Gobierno Vasco.<br><br>El Pleno del ayuntamiento de Lapuebla de labarca muestra, en el mismo sentido, que la Cuadrilla de Rioja Alavesa, los Ayuntamientos y el Gobierno Vasco, así como colectivos sociales y económicos, asociaciones representativas y partidos políticos, de Rioja Alavesa y Rioja Alta, su rechazo a que se desarrolle un proyecto de trazado de ferrocarril de altas prestaciones que afecte al territorio de Rioja Alavesa y a la zona de las Conchas de Haro para realizar la conexión Miranda de Ebro-Logroño. |

| | |
|---|---|
| 2. Lapuebla Labarkako Udaleko Udalbatzak bere aurkakotasuna adierazten dio trazadura honi, eragin larriak eta kalte konponezinak suposatuko lituzkeelako eskualde arabar honetako ekonomian. Izan ere, ekonomia hori paisaia aberastasunean, ondare historikoan, enoturismoan eta, batez ere, mahastizaintzan eta kalitate handiko ardoen produkzioan oinarritzen da. Horiek guztiak bateraezinak dira proposatutakoa bezalako azpiegitura batekin. | 2. El Pleno del ayuntamiento de Lapuebla de Labarca muestra así mismo su oposición a este trazado por la grave afectación y daños irreparables que supondría para la economía de esta comarca alavesa, basada en su riqueza paisajística, su patrimonio histórico, su enoturismo y en su principal actividad de cultivo de la vid y la elaboración de vinos de muy alta calidad, incompatibles con una infraestructura como la propuesta. |
| 3. Lapuebla Labarkako Udaleko Udalbatzak uste du oinarrizko trenbide sareko Mediterraneo-Kantauri prestazio handiko tren korridorea Castejón-Iruña-"Euskal Y"-aren zeharkatuz behar dela. | 3. El Pleno del ayuntamiento de Lapuebla de Labarca entienden que la conexión del corredor ferroviario de Altas prestaciones Mediterráneo-Cantábrico de la red básica de ferrocarriles debe de realizarse a través de Castejón-Iruña-Y Vasca. |
| 4. Lapuebla Labarkako Udaleko Udalbatzak Mozio honen berri emango die Sustapen Ministerioari, Eusko Jaurlaritzari, Gobernuak Euskadin duen Ordezkaritzari, Arabako Batzar Nagusiei eta Arabako Foru Aldundiari. | 4. El Pleno del ayuntamiento de Lapuebla de Labarca dará traslado de la presente Moción al Ministerio de Fomento, al Gobierno Vasco, a la Delegación de Gobierno en Euskadi, a las Juntas Generales de Araba y a la Diputación Foral de Araba. |
| Lapuebla Labarkako, 2018ko urtarrillaren 18an. | En, Lapuebla de Labarca a 18 de Enero de 2018. |
| STUA Maider Murillo Treviño<br>EAJ-PNVren bozeramailea | FDO Maider Murillo Treviño<br>Portavoz-de EAJ-PNV |